

IZENORDAINAK

1. Aukeratu kasu bakoitzean izenordain indartu aproposa:

- _____ ere egin izan ditugu bihurrikeriak gaztetan.
- _____ naiz horren erantzule bakarra.
- Goizean _____ erabili ditu nekazaritzako lanabesak.
- _____ zara ezagutzen dudun pertsonarik hoberena munduan.
- Atzo _____ ekarri zenituzten jostailuak eskolara.

2. Osatu testua hurrengo izenordain zehaztugabeekin:

norbaitek inor ezer zerbait edonork edozer

BAZKALORDUAN

- Bazkaltzeko ordua da. _____ prestatu beharko dugu, goseak amorratzen nago eta _____ jango nuke.
- Bada, egin dezagun pasta tomatearekin; _____ prestatzeko moduko platera da-eta.
- Baina hozkailuan ez dago _____ pasta egiteko! Huts-hutsik dago.
- Orduan _____ jaitsi beharko du dendara janaria erostera.
- Ondo da, neu jaitsiko naiz erosketak egitera, baina ez al da _____ nirekin etorriko?



3. Eman baiezkako esaldiak ezezka eta ezezkoak baiezkak. Erabili parentesi arteko hitzak.

- Norbait ikusi dugu autobusaren barruan.

_____ (inor)

- Zerbait jango dute, gosea dute-eta.

_____ (ezer)

- Goizeko lapurrek ez didate ezer ostu.

_____ (zerbait)

- Ez dut ezer entzun, beraz, ez dago inor etxean.

_____ (zerbait / norbait)